

txintxarri



Herria, 50 urte barru

'Lasartoria 2074' ikuskizuna ondu dute Kukukak eta Semblante Andaluzek; kultur etxean estreinatu dute / 6

TXINTXARRI

Sorginaren zain, dibertsioan

Festetan murgildu dira Zabaletako bizilagunak. Hurren leherrarazi du jai, eta jarduera ugari izango da igandera bitarte / 7

Luis Angel Argote Martin
gasteztarraren
lanak iragarriko
ditu sanpedroak / 2

Udal Musika Eskolako
lau ordezkari
Musikaldian parte
hartu dute, Tolosan
eta Ibarran / 4

Eskaintza eta
jarduera bereziak
eginda ospatu du
udaberria Aterpea
elkarteak / 5

Berrikuntza eta
hobekuntza ugari
egin ditu
Gidabaimenak
Euskaraz-ek / 8-9

Eguzki Bodesa
Ayesak gazteen
mailako Gipuzkoako
txapeldun titulua
irabazi du / 10

Gesalaga Okelan
Zarautz Beltzak 18
urtez azpikoak
Euskal Liga
eskuratu du / 11



600 85 75 86 
www.electricidadarregui.com

Kale Nagusia 39 - LASARTE-ORIA
Tel: 943-36 10 80 - Tel/Faxa: 943-37 25 21



Etxeko sabairako haizagailu berriak!

- Argiztatuak
- Intentsitate erregulagarriekin
- Distira handiko LEDak
- Eredu ezberdinekin



Festak saileko arduradun Txus Alonso eta Agustin Valdivia alkatea aurtengo afixa garailea eskuetan. TXINTXARRI

'Sorgin Jaia' afixak iragarriko ditu festak

Sanpedroak iragarriko dituen kartel irabazlea ezagutarazi berri du Lasarte-Oriako Udalak; Luis Angel Argote da egilea. Guztira hemeretzi lan aurkeztu dituzte aurtengo lehiaketara, eta epaimahai teknikoaren eta boza eman duten herritarren iritzia ez dira bat etorri

Txintxarri

Luis Angel Argote Martin gasteiztarra da *Sorgin Jaiak* izeneko kartelaren egilea, eta bere lana izan da epaimahai teknikoaren gustukoena. Hori hala izanik, 600 euroko saria eskuratu du artistak, eta bere lana izango da, orain, festen egitaraua ilustratuko duen irudia. Hori herriko komertzioetan ere ikusgai jarriko dute.

Bestelako iritzia izan dute, berriz, herritarrek. Udal ordezkariak jakinarazi dutenez orotara 185 parte hartze izan ditu afixa aukeratzeko parte hartze prozesuak, eta Lasarteoriatarrei hamahirugarrena izan da gehien gustatu zaiena. Horren ostean, bigarren lana izan da bozkatuena, eta, hirugarren gustukoena seigarren afixa.

Bestalde, jaietako omendua nor izango den datozen egunetan jakinaraziko duela esan

du Festak saileko zinegotzi Txus Alonsok.

Musika emanaldiak

Bestalde, Lasarte-Oriako Udalak sanpedroak herritarrekin diseinatu asmoz, horiek osatuko dituzten musika taldeak eta bestelako kale animazioak proposatzeko aukera eman zien herritarrei parte hartze prozesu baten bitartez. Pasa den apirilean, Gazteria saileko zinegotzi Txus Alonsok azaldu zuen, orotara 137 iradokizun jaso zituztela; horietatik 101 sarean eginak izan ziren, eta gainerako 36ak, berriz, etxe etxe banatutako eskuorrien bitartez. Iradokizunak egiteko epea amaituta, eta "horiek guztiak ikusi eta baloratu ostean", orduan iragarri zituen jaietan oholta ganean arituko diren musika talde nagusiak zeintzuk izango diren. Eskubiko taulan dituzue horiek, kontsultagai.

Kontzertu nagusiak

Ostirala, ekainak 28

Isla plaza: Ibai Berriak, 20:00etan.

Okendo plaza: ETS, 23:30ean.

Jaizkibel plaza: I love 80 Band, 00:00etan.

Larunbata, ekainak 29

Okendo plaza

Bulego, 00:00etan.

Star Ways, 02:00etan.

Jaizkibel plaza: Carlos Jean DJa, 00:00etan.

Igandea, ekainak 30

Okendo plaza:

Maruja Limon, 20:00etan.

Alargun Beltzak: 22:30ean.

Astelehena, uztailak 1

Okendo plaza: Belako, 23:00etan.

Asteartea, uztailak 2

Okendo plaza: Oxabi, 23:00etan.



Gaztetxo bat, postuan, txokolatea eskatzen. TXINTXARRI

Haurren minbizia ikertzera 870 euro bideratuko dituzte

Txokolate jan solidarioa egin du herritar talde batek, Semblante Andaluz eta udalaren laguntzarekin

Txintxarri

Lasarteoriatar talde batek laugarrenez aurrera eraman du txokolate jan solidarioa, Semblante Andaluz elkartearen eta udalaren laguntzarekin. Jende "ugari" bertaratu dela azpimarratu dute antolatzaileek eta 870 euro bildu dituztela jakinarazi. Diru hori haurren minbizia ikertzera bideratuko dute. Aipatu egitasmoa Estatu mailakoa da eta Bartzelonako Sant Joan de Deu ospitalarekin egingo dute, elkarlanean. Ehunka eskola, institutu, enpresa eta erakundek parte hartzen dute

urtero. Helburuak dira aipatu gaitz hori inbestigatzeko baliabideak lortzea eta jendea horren garrantziaz kontzientziaztea.

Antolatzaileek jakitera eman dutenez haurren 1.200 minbizi kasu diagnostikatzen dituzte urtero Espainiar Estatuan, hau da, 200 pertsona helduko ume batek pairatzen du gaixotasun hori. Gaitza inbestigatzeko baliabide gehienak helduen kasuak ikertzera bideratzen dituztenez, gisa honetako ekimenek gaztetxoaren beharregan jartzen dute fokua.



ORRIARTEKO IKAMA

Pintaketa matxistak, berriz ere

Oriarte Ikama erakundeak salatu du pintaketa matxistak egin dituztela Oriarte Larrekoetxe institutuan, laugarrenez. "Haserre eta amorratuta" daudela adierazi dute: "Ez gara isilik geratuko. Euskal ikasleria feminista martxan!". Ikamak gertatutakoa argitara atera duenetik elkartasun eta babes mezu ugari jaso ditu.

Herritarren botoen bila hasi dira alderdiak

Europako Parlamenturako hauteskundeak ekainaren 9an izango dira, igandearekin. Pixkanaka-pixkanaka ekitaldi politikoak antolatzen hasi dira herriko taldeak; PSE-EEK eta EH Bilduk bina gonbidatu ekarri dituzte Lasarte-Oriara herritarrekin hitz egitera



Txintxarri

Europako Parlamenturako hauteskundeetarako kanpainaren lehen egunean, hilak 24, PSE-EEKo hautagai Idoia Mendiak eta alderdiko idazkari nagusi Eneko Anduezak ekitaldi politikoa egin zuten Froilan Elespe Herriko Etxearen aurrean. "Hauteskunde hauek oso garrantzitsuak dira, askok uste dutena baino gehiago; Europaren etorkizuna dago jokoan", ohartarazpen horrekin hasi zuen Anduezak bere hitzarzteza. Lehendakariorde ohi Mendiak boz hauek "erabakigarriak" direla errepikatu zuen, "Europa urruti dagoela badirudi ere, gure egunerokoaren parte" dela. Horrez gain, bozka ematera joateko beste arrazoi bat ultraeskuina gelditzea da. PP eta Voxen arteko aliantzak "sakoneko estrategia" direla salatu zuen Mendiak. "Ez dago ultraeskuin on bat eta txar bat, justizia soziala, emakumeen askatasuna, LGTB kolektiboaren



Eneko Andueza eta Idoia Mendiak etorri ziren herriko etxera. TXINTXARRI



Nerea Kortajarena eta Xabi Luke gonbidatu zituzten Okendo plazara. TXINTXARRI

eskubideak, etorkinak eta hedabideen askatasuna deuseztatu nahi duen ultraeskuina dago".

EH Bilduk egun horretan bertan ekarri zituen Okendo plazara Nerea Kortajarena eta Xabi

Luke. *Orain errepublikak* leloa zuen autoaren aurrean kokatu ziren alderdiaren proposamenak azaldu eta bozkatzearren garrantziak ohartarazteko. Europako Parlamentuko hauteskundeek



NEURE KABUZ

MAITANE REBE

Immigrante

Ez dut gustoko "immigrante" hitza, etiketa hutsa iruditzen zait. Gainera, etiketa hori daramatenen gizateria baztertzen du, beraien konplexutasun emozionalari, historiari, ametsi eta beldurrei uko eginez. Emoziorik, motibaziorik edo adimenik gabeko izakiak balira bezala ikusten dira, bizirauteko lehen mailako senak besterik ez balituzte bezala.

Gutxitan eztabaidatzen da bere jaioterria utzi eta aukera berriak bilatzea erabakitzen dutenen nortasun-krisiaren inguruan. Inork ez ditu aipatzen kultura berri batera egokitzeko prozesu laugarria, ingurune ezezagun batean adiskideak eraikitzeke erronka, lana lortzeko eta bizirik mantentzeko eguneroko borroka...

Herrialde arrotz batean bizi direnak buru-kolapso baten ertzean bizi dira beti. Etengabeko emozioen zurrumbilo batean bueltaka, herrimaren eta oraindik lortu dezaketenaren itzaropenaren artean balantzaka. Orain beraien etxebizitza izango den gizarte berriari aurre egin behar diote bakardadeari, bereizkeriari eta beraien balioa zalantzan jartzeari.

"Todo el mundo les llama negritos" izan zen honen inguruan hausnartzera eraman didan esaldia. Autobus batean nengoela hiru gazteren arteko hizketaldia entzun nuen, kalean karro bat daramatela saltzen doazen pertsonen inguruan eztabaidatuz. Momentu hartan konturatu nin tzen azalaren koloreagatik, azentuagatik edo nazionalitateagatik errotutako estereotipo eta aurreiritziez.

Askotan galdetzen diegu zergatik etorri diren, baina ez nola sentitzen diren. Etorkin bakoitzak istorio bakarra du, erronkez, sufrimenduz eta garaipenez beteriko bidaia. Inposatzen zaien "immigrante" etiketa baino askoz gehiago dira. Ametsak eta nahiak dituzten pertsona dira.

Beraz, "immigrante" batekin aurkitzen zaren hurrengoan, gelditu momentu bat eta begiratu etiketatik haratago. Galdetu nola sentitzen den, entzun ezazu bere historia, ezagutu bere gizatasuna.

parte hartze maila txikiena dutenak izan ohi dira, hortaz, alderdien ahaleginetako bat bozkaketa horren garrantziak ohartaraztea da. Biek azaldu bezala, "agenda soziala baldintzatzen duten hainbat erabaki Bruselan hartzen dira". EH Bilduk babesten dituen ildotik joateko aukera izateaz gain,

ustez gora egingo duen ultraeskuinarena, "neoliberal eta antisoziala" ez garatzeko ere garrantzitsua da. "Faxismoaren estrategia jendartearen beldurra hedatu, beraien burua salbatzaile gisa agertu, eta ondoren, aginte autoritario eta antidemokratiko bat ezartzeko bidea irekita uztea da".

LH3-LH4-LH5-LH6koentzat
CITY JUMP-era goaz!
EKAINAREN 24AN
9:30ETIK 18:30ERA

Ttakuneko bazkideak: 26€
 Ttakuneko ez bazkideak: 29€
 Izena emateko:
 aisia@ttakun.eus
 695785392 (whatsapp)

Eguraldia lagun badugu...
 motxilan sartu beharrekoak:

- Bainujantzia
- Igerilekurako txanoa
- Txankletak
- Eskuoihala

Galtzerdi irristagaitzak,
 bazkaria eta askaria eraman behar dira.

TTAKUN
 KULTUR BARRIOA

MAITE Udaberrian, presta ezazu azala udarako!

ESTETIKA ARETOA

Zure azal motarentzat tratamendu egokiena aukeratzeko dugu

ZERBITZU MISTOAK

Uistin Kalea z/g, Lasarte-Oria • Tel. 943 37 08 45

Musikaz gozatu dute Lasarte-Oriatik kanpo

Tolosan eta Ibarren egin duten Musikaldian parte hartu dute Udal Musika Eskolako irakasle Miren Etxenagusiak eta bere hiru ikasleak: Pedro Garcia, Unai Granado eta Hugo Amil. Akordeoien nahiz abesbatzen topaketan jardun dira, Herrikide gunean

Txintxarri

Lasarte-Oriako Udal Musikako irakasle Miren Etxenagusia eta hiru ikasle (Pedro Garcia, Unai Granado eta Hugo Amil) giro ederrean aritu dira Tolosan eta Ibarren ospatu berri duten Musikaldian. Jaialdiko guneetako batean izan dira gure herriko ordezkariak, Herrikiden, eta akordeoien nahiz abesbatzen topaketetan parte hartu dute (interpretatutako piezak alboko taula arrosean dituzue). Instrumentuekin aritu ostean parte hartzaile bakoitzak kamiseta, karpeta eta hamaiketako bana jaso ditu.

Etxenagusiak TXINTXARRI-ri kontatu dionez, ikasleen gurasoek "asko" eskertu dute irakaslearen jarduna eta herritik kanpoko ekimenetan parte hartzeko hartutako lana. Irakasleak berak Lasarte-Oriatik at aurrera eramaten dituzten ekimen eta topaketetan parte hartzera animatzen ditu ikasle gehiago.



Miren Etxenagusia irakaslea, bere ikasleekin. MIREN ETXENAGUSIA



Ekainaren 16an, igandearekin, Realak urtero antolatzen duen Fundazio Egunean parte hartuko dute Etxenagusiak berak eta zenbait ikasle, trikitixa eta panderoekin, egun osoan zehar. Zubietako entrenamendu eremua

aldatzeko obretan murgilduta daudenez, aipatu festa hori Anoeta estadioaren inguruan aurrera eramango dute; musika emanaldiez gain jokoak, pailazoak eta bestelakoak izango dituzte aukeran bertaratzten direnek.

Barrokoa eta elizako musika

Oiasso Kameratak, Easo Gazte Abesbatzak eta Easo Kapera Gregorianistak bi kontzertu eman dituzte berriki, Danok Kide elkarteak antolatutako XVIII. Musika Topaketen barruan. *Barroko ala ez Barroko?* emanaldia egin du Irundik etorritako musikari taldeak; Easo Abesbatza taldearen barruko bi koruek, berriki, musika elizkoian oinarritutako ikuskizuna.



TXINTXARRI

Musikaldian interpretatu dituztenak

Udal Musika Eskolako ordezkariak akordeoien nahiz abesbatzen topaketetan parte hartu dute. Hugo Amil (eskusoinua), Pedro Garcia eta Unai Granado (abesbatza) izan dira ikasleak; irakaslea, aldiz, Miren Etxenagusia.

Akordeoien topaketa

- *Abian da festa.*
- *A Sky Full of Stars* (Coldplay).
- *17:21* (Huntza).
- *Kantu bat* (Musikaldia).
- *Cheerleader* (Musikaldia).
- *Captain Crow* (Nell Benjamin, Laurence O'Keefe; Alaitz Agolak eta Ricardo Llanasek moldatua).
- *Y.N.C.A.* (Village People; Maite Janeirok moldatua).
- *Tolosa Iñauterietan* (Moldaketa: Koldo Tarragona Monblona).

Abesbatzen topaketa

- *Abuela maitea* (En Tol Sarmiento).
- *Lisboa* (Anne Lukin, Gorka Urbizu).
- *Grita* (Pau Dones, Y. N. Aran).
- *Atarratzeko Gazteluko Kantua* (Benito Lertxundi).
- *564* (Hertzainak).
- *Baga, Biga, Higa* (Mikel Laboa).
- *Paris* (Izaro).
- *Buruz behera* (Huntza).



ALBOKA ABESBATZA

Beasainen abestu dute

Alboka abesbatzak Beasainen eman zuen kontzertua hilaren 25ean, bertako Loinatz koruarekin batera eta Erketz EDTko zenbait dantzariren laguntzarekin. Lasarte-Oriako taldeak zazpi pieza interpretatu zituen aurrena eta Loinatzekin jardun zen gero: *Zure boza* eta *Euskal jokoak* abestu zituzten.



"Garai bateko Goikokaleko alpagateriko erromeria" egin zuten Ormazabal loradendan. TXINTXARRI

Ederki ospatu dute udaberria

Aste gutxi falta dira uda heltzeko baina urtaroak oraindik badu zer eman. Hala uste du Aterpea elkarteak eta ohiko moduan ospatzea merezi duela ere: ekimen sorta aurrera eraman dute herritarrak saltokietara erakarri eta Lasarte-Oria bizirik mantentzen laguntzeko

Maitane Aldanondo

Pagotxaren bila edo eskaintza bereziak baliatu nahian, Aterpea elkarteak parte diren saltoki askotan erosteko pizgarriak izan dituzte eskura herritarrek. Horrekin batera, jarduera egitaraua ere atondu dute kideek beraien establezimenduetan aurrera eraman dituztenak.

Hilaren 24an, Lilura liburu dendan, %5eko beherapenarekin eros zitezkeen *Txano y Oscar* eta *Sara-Li* bildumako liburuak, eta haien egile Julio Santos eta Patricia Perez ilustratzailearen sinadurarekin etxera eraman. Jaizkibel plazako Dulce Tentacion goxoki dendan, berriz, irudimena landu zuten haurrek. Askotariko forma zuten irudiak margotu eta haiekin goxokiak apaindu zituzten dendaren atarian.

Hurrengo egunean ere izan zen zer eginik. Saito Gimnasio-

ko irakasleek dantzan jarri zituzten haur eta helduak Jaizkibel plazan egindako zumba saioan. Arkupe tabernan, berriz, bermutarekin egin zuten hamaiketako. Handik ez oso urruti, Ormazabal Loradendaren proposamenak jana, edana, musika eta dantza batu zituen Eguerditik hasita, erromeria egin zuten Goikokalen. Gaita doinuekin hasi eta bukatu zuten; tartean, ordu eta erdiz, dantza egin zuten Ttirriki Ttarraka eskolako kideek eta Erketzekoek jarritako musikarekin. Dantzak eragindako beroari, eguzkiarena ere gehitu

BAI GOIZEZ BAI ARRATSALDEZ TXU-TXU TRENA IBILI DA HERRIKO KALEETAN BARRENA

zitzaion. Freskatzeko aukera aproposa izan zen Bereziartuako sagardoa. Hori gutxi balitz, 5 euroan txartela erosi zutenek paella bazkaltzeko abagunea izan zuten.

Arratsaldean, Buenetxea kafetegi-taberna batu zen, David Moreno upeltegiko ardoen dastaketa, pinxo dastaketa eta Radio Rebelde Covers taldearen kontzertuarekin. Arkupen, berriz, Sinergy eta Mandragora Negra taldeek egin zuten emanaldia. Horrez gain, bai goizez bai arratsaldez txu-txu trenari ibili zen herriko kaleetan barrera. Ilara luzeak osatu ziren Geltoki kalean bertara igo eta ibilbidea egiteko.

Jarduera gehiago

Udaberriko Festaz aparte jarduera gehiago aurrera eraman-go ditu Aterpeak aurten: Esku-



Ezker-eskuin: Julio Santos, Patricia Perez eta Oihana Izpura, Lilurako jabea. TXINTXARRI



Zumba eta jumping saioa egin zuten Saito gimnasioa kideek. TXINTXARRI



Radio Rebelde Covers taldeak Buenetxea kanpoaldean jo zuten. TXINTXARRI



Txu-txu tren, Kale Nagusian barrera. TXINTXARRI

ratu 1.000 euro; Santa Ana eguneko pintxoak; Stock Azoka; Gozatu; Pintxo Ibilbidea; Tokiko dendetara erostera autoan etorritako gero, SuperBM supermerkatu gaineko parkinean ordubetez doan aparkatzeko aukera; Eguerrietako egitasmoak; eta Aterpeko bazkide izateko kanpaina.

Ekimen horiek guztiak gauzatzeko Lasarte-Oriako Udala-ekin lankidetzan hitzarmena sinatu du Aterpeak, berriki. Gauzak horrela, erakundeak 25.000 euro emango dizkio tokiko merkataritza sustatzea eta herriari bizia ematea helburu dituen eragileari.



'Lasartoria 2024' ikuskizunaren estreinaldian parte hartu zutenek ikus-entzuleen txaloak eskertu zituzten amaieran. TXINTXARRI

Mende erdi barruko herria

Kukuka Antzerki eta Dantza Eskolak eta Semblante Andaluzek elkarlanean ondutako 'Lasartoria 2024' herri antzezlanaren estraineko emanaldia egin dute Manuel Lekuona Kultur Etxean. Lasarteoriatar askoren jakin-mina piztu du ikuskizunak

Maitane Aldanondo

Ilunpean, Xumela koruko kideen ahotsek lagunduta talde bat sartu da antzokian. Ilunpean darabatzaten kriseiluen argiak besterik ez dira ikusten aulki artean. Eszenarioan, berriz, argi gorridun irrati zahar bat.

Aretoa zeharkatu eta eszenarioa igotzeko eskaileren ondoan elkartu da taldetxo. "Nora goaz?" elkarri galdetzen hasi dira, izan ere, nortasunaren gaineko hausnarketa bada obraren ardatzetako bat. Utreran jaiotako emakumea "la vasca" da han, eta hemen, berriz, andaluz. Hala ere, elkarren artean euskaraz hitz egiten dute.

Irudikatu duten mende erdi barruko Lasarte-Orian, klima aldaketaren ondorioak nabari dira, pertsonaiek beroa baitute eta batzuek ez dute euria ezagutzen. Pertsonailetako baten

jatorria den Utreraren klima du orain herriak. Kapitalismoa amaitu eta Erdi Aro Berrian, nazioarteko inbertsio funts handiak dira munduaren jabe eta etsipena da nagusi.

Irratian entzundakoari tiraka, Rosita eta Romualdoren roletan aritu dira aktoreak, eta tradizioaz edo identitateaz gogoeta egin. Une batzuetan Kukukako eta Semblante Andaluzeko dantzariak parte hartu dute kontaktuzunean, baita herriko zenbait musikari ere. Azken ondorioa olatuak gisa ekin eta ekin ari direla da, inora iristeko esperantzarik gabe. Hori bai, zerbait badira, euskaldunak direla jakinda. Izan ere, antzezlana bera euskaraz egin dute aktore guztiek eta solasaldien gaztelarazko azpidatziak pantailan proiektatu dituzte. Xumelako lagunak *Itasoa gara* abestu dute jarraian

eta ikuskizunean parte hartu duten lagun guztiak irten dira eszenariora agurtzera. Txalo zaparrada bat jaso dute bertaratutakoekin aldetik.

22. Antzerki eta Dantza Astea

Hastear den ekaina hilabete berezia izan ohi da Kukukarentzat, ikasturte osoan zehar landutakoa erakusteko garaia delako. Datorren astelehenean (hilak 3) hasiko da 22. Antzerki eta Dantza Astea eta 8ra arte makina bat emanaldi egingo dituzte antzerkia, Euskal Dantza edota Euskal Dantza Sor-kuntza ikasten ari diren herri-tarrek. Ohi bezala, desfile koloretsu batekin ekingo diote ospakizunari. Egitarauari buruzko xehetasunak aldizkari honetako *Agenda* atalean nahiz www.txintxarri.eus atari digitaallean irakur ditzakezue.



'Lasartoria 2024' antzezlanaren eszenetako bat. TXINTXARRI



Semblante Andaluz elkarteko dantzariak ere parte hartu zuten emanaldian. TXINTXARRI



Dantza, musika, antzerkia... diziplina artistiko ugari jorratu zituzten. TXINTXARRI

Teresari ongi etorria egin aurreko beroketa

Festa betean dira Zabaletako bizilagunak. Haurrak izan dira lehen jai egunetako protagonista nagusiak. Astearte honetan, hilak 28, txupinazoa jaurti dute auzoko haur eta gaztetxoek, ederki aritu dira horren ostean auzo elkarteak antolatutako jardueretan; Teresa sorginaren irudiak serigrafiatu dituzte haur eta heldu askok. Bien bitartean, ohoitza gainean talentu handia erakutsi dute dantzan eta kantuan. Ostean, auzoko buruhandiengandik ihesi ibili dira haurrak, eta, egunari amaiera emateko, berriz, goxoraketak izan dira.

Bigarren egunean ere horiek izan dira protagonistak: haurrak. Egunotarako eguraldiaren iragarpenak medio, aldaketa bat egin behar izan dute egitarauan; eguzki izpiak baliatuta, apar festa aurrera eraman dute, eta gozatu ederra hartu dute bertan parte hartu dutenek. Hori amaitzean, goxoraketak izan dira eta buruhandiek jolasean aritu dira gero. Gaur iritsiko da Teresa sorgina auzora, eta igandera bitartean festak ez du etenik izango.

Aurrekari gisa, bihar, ekainaren 1ean jokatu den pala finalerako kanporaketak jokatu zituzten hilaren 28an.



Hilaren 25ean jokatu zuten pala finalerako kanporaketa. KRIS ALVAREZ



Haurrak, txupinazoan, jaiari hasiera ematen. TXINTXARRI



Buruhandiengandik ihesi eta goxokien bila ederki aritu dira Zabaletako jaietan bildutako haur eta gazteak. TXINTXARRI

Dantza eta kantu erakustaldi ederra egin zuten Talentu Bila ekimenean. TXINTXARRI



Txintxarri

Aurrerapauso nabarmenak eman ditu azken hilabeteetan Gidabaimenak Euskaraz ekimenak. Otsailean hasi ziren eskuliburu berrituak banatzen, eta egindako lana Euskal Herriko autoeskola askotara helarazi dute. Material berriak dagoeneko eman ditu fruituak, eta prozesu horretako katebegi guztiak elkar-tu dira ondorengo elkarrizketan: Iñaki Aizpurua, Gidabaimenak Euskaraz ekimeneko arduraduna; Jon Howick, atal teorikoa euskaraz atera berri duen gaztea; Haritz Eizagirre, Usurbilgo So-lozabal autoeskolako irakaslea; eta Ander Moron, Usurbilgo euskara teknikaria.

Aurrerapauso handiak eman ditu azken hilabeteetan Gidabaimenak Euskaraz ekimenak. Zein puntutan dago orain?

IÑAKI AIZPURUA: Duela zortzi hilabete sinatu genuen hitzarmen berria, eta egindako lanaren zabalkunde fasean gauden orain. Gipuzkoako, Bizkaiko eta Arabako autoeskola guztietatik ari gara pasatzen, eta bertako langileei erakusten diegu momentu honetan eskuragarri daukagun materiala. Webgunea ere berritu dugu, eta autoesko-lei eskaintzen diegu aukera bertan jarri ditugun testak eta bestelako materiala erabiltzeko. **Autoeskola guztietan dago atal teorikoa euskaraz egiteko aukera?**

I.A.: Gidabaimenak Euskaraz webgunean ikusgai dago euskarazko eskaintza duten autoeskolen mapa, 120 inguru dira. Haiengana joaten garenean badaude itsu-itsuan onartzen dutenak, baina beste batzuk ez dira lehenengoan animatzen. Guretzat garrantzitsua da gidabaimena euskaraz atera nahi duten ikasleek jakitea euren herriko edo inguruko zein autoeskoletan daukaten aukera. **Jon, zu zara material berriekin gidabaimena euskaraz atera duen lehenengo pertsona. Zergatik hautatu zenuen euskaraz egitea?**

JON HOWICK: Aukerarik logikoena iruditzen zitzaidan. Herriko jendearekin, lagunekin eta klasekideekin betidanik hitz egin dut euskaraz. Hortaz, gidabaimena ere euskaraz ateratzea zen naturalena niretzat.

Zer moduzkoa izan da esperientzia?

J.H.: Hizkuntzari dagokionez ez dut arazorik izan. Tarteka bazeuden ezagutzen edo ulertzen ez nituen hitzak, baina irakas-



Iñaki Aizpurua, Jon Howick, Ander Moron eta Haritz Eizagirre, euskaratutako materiala eskuan dutela. KRONIKA

Txertatutako berrikuntzekin, euskarazko materiala gaztelerazkoa baino osatuagoa da

Berrikuntza eta hobekuntza ugari egin ditu azken hilabeteetan Gidabaimenak Euskaraz ekimenak. Webgunea berritzeaz gain, materiala osatu eta eskuliburuak argitaratu dituzte, eta dagoeneko jasotzen ari dira egindako lanaren emaitzak.

leari galdetuta edo pixka bat irakurrita erraz argitu dituzte zalantza guztiak.

Usurbilen sei ikasleek atera dute teorikoa euskaraz material berriekin. Asko aldatzen da zure lan egiteko modua, Haritz?

HARITZ EIZAGIRRE: Ez, lana ez da asko aldatzen. Hitz bat lehenengo aldiz entzutean baliteke harridura pixka bat sortzea, baina hori euskaraz zein gazteleraz gertatzen da. Bertan ikusi duguna da gazte euskaldunak ez dakitela gidabaimena euskaraz ateratzeko aukera dagoela, eta hori ezagutaraztea tokatzen zaigu guri. Gainera, plataforma berrian informazio guztia eguneratuta dago, materiala ondo osatu dute, eta iruditzen zait ez

dagoela motiborik teorikoa gazteleraz egiteko. Plataforma zaharrenekin gertatu izan zaigu ikasle bat euskaraz hasi eta gaztelerara aldatzea, orain jada ez da gertatzen.

Gidabaimena euskaraz ateratzea zailagoa dela esan ohi da. Zurrumurru hori iritsi zaizue? Zer deritzozue?

J.H.: Bai, niri behintzat bai. Lagun zaharragoek esan izan didate euskaraz zailagoa dela, edo galdera arraroagoak daudela; baina haiek gazteleraz atera zuten. Nire kasuan, prozesua oso normala izan da, pixkanaka kontzeptuak barnerratzen joan naiz eta azterketara ondo prestatuta iritsi nintzen. Proban egokitu zitzaizkidan galdera

guztiak neuzkan aurretik landuta.

H.E.: Plataforma zaharrean 40 test inguru zeuden, eta orain 115etik gora daude; gaikakoak, azterketaren estilokoak eta ohiko akatsekin sortutakoak. Galderen kopurua handitzeak asko laguntzen du ikasleak prestatzeko garaian. Informazio guztia eguneratuta egotea ere ezinbestekoa da, eta horretan nabarmena izan da aurrerapausoa. Webgunean bideoak txertatu dituzte zenbait arau errazago ulertarazteko. Esango nuke euskarazko materiala hobea dela gaztelerazkoa baino.

I.A.: Gaiak eta testak itzultzeko UZEIren eta IVAPen laguntza izan dugu. Elkarlan horrekin

IÑAKI AIZPURUA:
"GUK BETI ESATEN DUGU PROIEKTU HAU BIZIRIK DAGOELA. EGUNERO GAUDE BERRITASUNEI ADI ETA GURETZAT OSO GARRANTZITSUA DA AUTOESKOLEKIN DUGUN HARREMANA ZUZENA IZATEA"

lortu duguna da erabiltzen den terminologia, esamoldeak eta galdetzeko erak berdinak izatea prozesu guztian. Alegia, material horrekin prestatzen den ikasleak formulazio antzekoak topatuko dituela azterketa egiten duenean. Orain arte azterketa euskaraz egin duten ikasleek esan digute erraz ulertu dituztela galderak, itzulpen garbiak direlako eta terminologia egokia delako.

Aldakorra da legeen mundua. Webgunea eguneratuta mantentzeak lan handia eskatzen du, ezta?

I.A.: Bai. Guk beti esaten dugu proiektu hau bizirik dagoela. Egunero gaudu berritasunei adi; taldean adituak eta autoeskoletako irakasleak dauzkagu, eta galderak zein informazioa aldira berrikusten dugu. Oso garrantzitsua da autoeskoletan dugun harremana zuzena izatea, bertan lanean dabiltzanak ohar-tzen direlako zeintzuk diren ikasleen zailtasunak, eta iritzi horien arabera egiten ditugu hobekuntzak.

H.E.: Hori da. Materialari buruzko edozein arazo helarazten diegu. Argazki bat kargatzen ez bada edo itzulpen bat ez bada egokiena, esan egiten diegu. Oso harreman zuzena daukagu.

I.A.: Gure lana ez da liburuak autoeskola batean utzi eta hurrengora joatea, bakoitzaren ekarpena kontuan hartzen dugu. Azterketei buruz galdetzeko ere deitzeko ohitura daukat, datuak eta emaitzak zeintzuk izaten ari diren jakiteko.

Ikasleek euskararen aldeko hautua egiteko giltzarrietako bat da autoeskolako irakaslea, ezta?

H.E.: Bai, eta aukera hori bada goela ezagutarazten saiatzen gara. Ikasleak galduta iritsi ohi dira autoeskolara, eta gure ardua da adieraztea baduela gi-



ANDER MORON: "HERRITAR EUSKALDUN BATEK DUEN HIZKUNTZA ESKUBIDEA EZ DU BERMATZEN BEREZ BERMATU BEHARKO LUKEEN ERAKUNDE BATEK, ETA HORI SALAGARRIA DELA IRUDITZEN ZAIT"

dabaimena euskaraz ateratzeko aukera, udalerrri euskaldunetan batez ere. Nik gazteleraz atera nuen karneta, euskaraz egingo nukeen, baina ez nekien aukera bazegoenik ere. Horregatik da garrantzitsua hori azaltzea, jendeak jakin dezan euskarazko material oso egokia daukagula. **I.A.:** Gertatzen zaiguna da herri oso euskaldunetako autoeskola batzuetan harrera egiten duen pertsonak ez dakiela euskaraz. Orduan, haiek esaten digute ez zaiela gure proiektua interesatzen. Hala ere, irakasleak euskaraz ez jakiteak ez du esan nahi herriko ikasleek ez dutenik aukera hori izan behar.

Haritz lehen esan duzu ikasle batzuk euskaraz hasi eta gaztelarrera pasa izan direla. Material berriarekin hori ekiditea lortu da?
H.E.: Azken bolada luzean ez da aldaketarik izan. Plataforma berria martxan jarri dutenetik inork ez du berebiziko zailtasunik izan, eta martxa onean joan dira ikasle guztiak. Azterketak egiten hasi dira dagoeneko ikasle horiek, eta oraingoz gehienek lortu dute gainditzea. Oraindik

sumatzen dut hasieran zalantza etortzen direla batzuk, euskarazko materiala zailagoa denaren aurreiritziarekin. Hala ere, gure azalpenak entzun ondoren, euskaraz egin nahi duten horiek segituan animatzen dira. **Plataforma berriarekin atal teorikoa oso indartuta geratu da, baina praktikoan lan asko dago egiteko.** **I.A.:** Aztertzaileetan dago gabezia. Autoeskola askotan irakasleak ondo hitz egiten du euskaraz, eta normalean hala ematen dituzte klaseak. Hala ere, azterketaren egunean agindu guztiak gazteleraz jasoko dituztenez, argibide horiek gazteleraz esaten dituzte. Bide horretan urratsak ematea falta da, irakasleen zein aztertzaileen aldetik.

Solozabalen nola egiten duzue?

H.E.: Inakik aipatu duen moduan; klasean zehar euskaraz egiten dugu, baina azterketarako prestatzen ari garenean, edo azterketaren simulazioa egiten dugunean, gaztelerara pasatzen gara. Azterketa ahalik eta ondoen irudikatzea da asmoa, eta hiztegia oso oinarrizkoa izan arren, horixe lantzen dugu.

J.H.: Hasieratik esan ziguten azterketa praktikoa gazteleraz egin behar genuela, eta horregatik jasoko genituela argibide zehatzak gazteleraz. Nik hasieran ulertzeko zailtasun pixka bat izan nuen, baina segituan ohitu nintzen egoera horretara. **Urratsak ematea falta dela diozue. Badago aurrera egiteko aukerarik?**

I.A.: Irakasleei dagokienez, uste dut urte gutxiren buruan autoeskola askotan egongo direla azterketa praktikoa eta klaseak euskaraz azaltzeko gai diren pertsonak. Garrantzitsuena eta zailena azken urratsa da, aztertzaileena. Hor iruditzen zait



AM, A1, A2 eta B gidabaimenak ateratzeko materiala dago eskuragarri. KRONIKA

zailagoa izango dela aldaketa. Konpetentzia Madrilen dagoen momentutik asko zailtzen da guztia. Gipuzkoan dauden zazpi aztertzaileetatik sei beste probintzia batetik etorri dira.

H.E.: Ikusarazi behar diegu geroz eta jende gehiago ari dela teorikoa euskaraz ateratzen. Hori ikusten badute agian buelta bat emango diote atal praktikoari ere. Dena den, niri ere iruditzen zait denbora pixka bat egon beharko dugula zain.

I.A.: Hori da, sortu dugun materialaren erabilera handia izateak asko lagunduko luke bide horretan. Orain egindako lanaren zabalkundea egiten ari gara, eta hurrengo fasean erabilera jarriko ditugu gure indar guztiak.

Kotxeko karnetaz hitz egin dugu orain arte, baina beste gidabaimen batzuk ere atera daitezke euskaraz, ezta?

I.A.: Bai, bai. Zikomotorraren AM baimena, motorren A1 eta A2 baimenak, eta autoaren B baimena ateratzeko materiala dago eskuragarri. Gainera, une honetan atoiaren baimena ateratzeko materialaren itzulpena amaitzen ari gara. Hori egin ondoren etorriko dira kamioiaren C1 eta C baimenak, eta autobusaren D1 eta D baimenak. Azkenik, puntukako gidabaimena berreskuratzeko kurtsoa ere euskaratuko dugu. Helburua da abendurako material guztia prest edukitzea.

Prozesu honetan zein izan da Buruntzaldeako udalen rola?

ANDER MORON: Buruntzaldeko sei udalak aspalditik aritu dira gidabaimena euskaraz ateratzeko sustatzaile lanetan. Autoeskolekin, Eusko Jaurlaritzarekin eta Trafiko Zuzendaritzarekin elkartu izan gara, eta hizkuntzaren gaia aintzat hartzeko eskatu izan dugu. 400 euroko saria ere sortu genuen gidabaimena euskaraz ateratzeko pizgarri modura. Gazte askok hori ere kontuan hartuko zuten hautaketa egiteko garaian. Txikitasunetik eragiten saiatu gara Buruntzaldeatik; UEMAn dauden hiru udalerrri dauzkagu, eta anomalia bat da euskaraz bizi, euskaraz ikasi eta esparru honetan gazteleraz jardun behar izatea.

Bestalde, atal praktikoari dagokionez, aipatu dugu aztertzaileekin dagoen arazoa, Espainiako Trafiko Zuzendaritzak duelako eskumena. Hala ere, aztertzaileak espainiarrak izanagatik, bertako herritarrek badituzte eskubideak, horregatik egoera salagarria dela iruditzen zait. Herritar euskaldun batek duen eskubidea ez du bermatzen berez bermatu beharko lukeen erakunde batek.

**JON HOWICK:
"GIDABAIMENA
EUSKARAZ ATERATZEA
LOGIKOENA ETA
NATURALENA
IRUDITZEN ZITZAIKAN"**

Orain emandako pausoa sekulakoa izan da, eta nabarmentzeko modukoa da euskarazko materiala gaztelerazkoa baino egokiagoa dela. Falta dena da prozesu osoa euskaraz egin ahal izatea. Gaur arte ahoz ahokoak eragin handia izan du, txarrerako batzuetan, eta orain da momentua beldur horiek uxatzeko. Gazteen artean zabaldu behar da euskaraz egin duten horiek gustura aritu direla.

Hau guztia esanda, Buruntzaldean bizi den jendeari gomendatuko zenioke gidabaimena euskaraz ateratzea?

J.H.: Bai, zalantzarik gabe. Prozesua oso naturala da, kalean euskaraz hitz egiten dugun bezalaxe egiten dugu autoeskolan. Ez da zailagoa eta ez dut inolako arazorik izan.

H.E.: Teoria beti izaten da astuna, baina edozein hizkuntzata gertatzen da hori. Rotondari biribilgune deitzaiek lehenengo aldiak bakarrik sortzen du harridura, bigarrenetik aurrera ohitu egiten zara. Beldurra ez jakintasunetik dator, eta guk argi diogu hizkuntzak ez duela zailtasuna areagotzen.

**HARITZ EIZAGIRRE:
"ESANGO NUKE
EUSKARAZKO
MATERIALA HOBEA
DELA GAZTELERAZKOA
BAINO"**



Jon Howick izan da material berriarekin gidabaimena ateratzen lehena. KRONIKA

Eguzki Bodegas Ayesa, Gipuzkoako txapeldun

Gazteen mailako Gipuzkoako Ligako finalean, Eguzki Bodegas Ayesak aurkako emaitzari aurre egin eta hiruna berdindu du Erainekin. Ez da penaltirik egon, liga erregularreko sailkapena izan dute kontuan txapelduna izendatzeko

Txintxarri

Eguzki Bodegas Ayesa taldeak asko sufritutako txapelketa eskuratu zuen Oñatin Erainen aurka, hilaren 25ean. Gazteen mailako Gipuzkoako finala jokatu zuten bi taldeek eta herriko prestatzailea Francisco Javier *Kixki* Perezek azaldu moduan, "ez genuen joko ona erakutsi, baina azken minutuan fin egon ginen atea aurrean eta txapelketa eskuratu dugu".

Lehen zatian, Lasarte-Oriako gazteak ez ziren ongi moldatu kantxan. Zuzen jokatzeko saiatu ziren, baloia azkar mugituz erdi eta hegaletatik erasoak egiten, baina ez zegoen jokoaren antolatua eta horrek Eraini erasoak moztu eta kontraerasoak egiteko aukera eman zizkion. Aukera ugari sortu zituen horrela Donostiako taldeak eta horietako bi ongi baliatu zituen markagailuan aurretik jartzeko.

Atsedendira iritsi eta jokoa lasaitu behar zutelaz adierazi zien Kixkik. Era horretara, baloia mugitu eta aukerak bilatuz, joko hobetu zuen Eguzkiko gazte taldeak.

Hasiera batean ez zen aurkariaren atera iristeko nahikoa



Eguzki Bodegas Ayesa kideak eta jarraitzaileak, txapelketa ospatzen. EGUZKI ARETO FUTBOLA

izan. Korer batean Lasarte-Oriako taldeak helburua lortu zuen, ordea eta 2-1 gerturatu zen.

Eguzkiko jokalariei indarrak eman zizkien baina poztasunak minutu gutxi iraun zuen; Erainek hirugarren gola egin zuen.

Egoera zailean zegoen Eguzki Bodegas Ayesa, denbora aurka zuen eta txapelketa eskuratzeko arriskatu behar zen. Harmailetan Lasarte-Oriatik joandako bi autobus gogor animatzen ari ziren eta senitarteko eta lagunek bultzatuta balentria lortu zuen taldeak.

Lehenik penalti batean eta jarraian Markel Alvarezen gol izugarriarekin hirunako berdinketa eskuratu zuen.

Neurketa berdinketan amaituz gero, garaile izango zirela zekien taldeak Kixkik azaldu modura: "Aurten arau moldaketa batzuk egin dira azken fasean eta berdinketa egonez gero, penaltirik ez botatzea erabaki zen. Talde garaile erabakitzeke liga erregularreko postua kontuan izango zen eta gu hirugarren izan ginen; Erain laugarren".

Etorriko neurketan erabakiko da jubenil eta erregionalen igoera

Erregional Gorenak bina berdindu du neurketa Aloña Mendiren aurka; jubenilek bana egin dute Urolarekin

Txintxarri

Ez da posible izan. Ostadar SKT klubeko Erregional Gorenak eta jubenilek ezin izan dute igoerako kanporaketa lehen partidaren bideratu. Joaneko neurketetan berdinketa eskuratu ostean, etorriko partidak erabakigarriak izango dira.

Erregional Gorenak Aloña Mendiren aurka jokatu zuen Michelin kirol gunean. Etxeko

taldeak zaletuen berotasuna jaso zuen eta guztien bultzadari esker, aurka jarri zitzaion (0-2) kanporaketa berdintzea lortu zuen bigarren zatian.

Jubenilek ere antzeko egoera bizi izan zuten. Atsedendira husna iritsi ostean, bigarren zatiaren hasieran Urolak gola egin zuen. Talde urdin-beltzak ederki borrokatu eta 88. minutuan berdinketa eskuratu zuen.



Erregional Gorengoan partida. TXINTXARRI

Ekaineko lehen asteburua zirrargarria izango da, beraz, Ostadarreko taldeentzat; igoera eskuratzeko azken aukera izango dute. Erregional Gorenak

ASTEBURUKO HITZORDUAK

FUTBOLA

GORENGOEN M., IGOERA PLAY-OFF

Aloña Mendi KE - Ostadar SKT
Larunbata. 17:00. Azkoagain, Oñatin.

J. I. MAILA, IGOERA PLAY-OFF

Ostadar SKT B - Urola KE B
Igandea. 11:30. Michelin Kirol gunean.

PILOTA

UDABERRI TX., I. 2. MAILA, 1/4

Mundarro 1 - Intza KE 1
Ostirala. 18:00 (1. partida). Txomiñene, Astigarragan.

PALA

ZATAKO TXAPELKETA

Zatako Emakumeen* 2. pala txapelketa zein 1. Frontenis txapelketa mistoko finalak jokatu dira.

Larunbata. 18:30. Zabaletako pilotalekuan.

IGERIKETA

GIPIZKOAKO OPEN SARIA

Buruntzaldea IKTKo infantil, junior eta absolutu mailako igerilariak Gipuzkoako Open Sarian egingo dute igerian.

Larunbata eta igandea. Paco Yoldi kirol., Donostia.

GIPIZKOAKO UDAKO SARIA

Buruntzaldea IKTKo infantil, junior eta absolutu mailako igerilariak Gipuzkoako Udaکو Sarian lehiatuko dira.

Larunbata. Zubikoa kirol., Oñatin.

GINNASTIKA

EUSKADIKO TXAPELKETA

LOKEko master, senior eta kadete mailako gimnastek Euskadiko txapelketan parte hartuko dute.

Larunbata. Durango, Bizkaian.

ATLETISMOA

EUSKADIKO TXAPELKETA

Herriko atletek 18 eta 20 urtez azpiko

Euskadiko txapelketa lehiatuko dute.
Larunbata eta igandea. Gasteiz, Araban.

PROBA LIBREAK

Markak egiteko proba libreak izango dituzte herriko atletak.

Larunbata. 16:00. Miniestadioa, Donostia.

MENDI LASTERKETA

EH MENDI ERRONKA

Herriko kirolariek EH Mendi Erronkan parte hartuko dute.

Larunbata. 08:00. Leitza, Nafarroan.

ERRUGBIA

IZAR BELTZAK TORNEOA

Atletico San Sebastian, Huescako Quebrantahuesos eta Beltza Lasarteorians/ZRT taldeek Izar Beltzak torneo lehiatuko dute.

Larunbata. 15:15. Michelin kirol gunean.

ERAKUSKETA

40. urteurrena dela eta, Beltzak RTK argazki erakusketa antolatuko du.

Igandera arte. Asteburuan 11:00etatik 13:00etara eta asteazken zehar, 18:00etatik 20:30era.

ZALDI LASTERKETAK

UDAKO DENBORALDIA

Donostiako Hipodromoak Udaکو denboraldiari hasiera emango dio.

Ekainak 6. 11:20. Hipodromoa, Donostia.

DENBORALDIA AMAIERA FESTA

OSTADAR SKT

Ostadar SKTK denboraldi amaierako festa antolatuko du.

Larunbata. 11:00. Oriarte BHI Landaberrin.

TEXAS LASARTEARRA CF

Texas Lasartearra CF taldeak denboraldi amaierako jala ospatuko du.

Larunbata. 10:30. Sasoeta-Zumaburu ikastetxea, Sasoeta eraikinean.

Era berean, finaleko azken bost minutuak denbora gelditzen jokatzeko arautu zen eta azken minutu horiek sari gozoa izan zuen sufrimendua izan zirela onartu du prestatzaileak: "Ez zen lan erraza izan, baina meze izan zuen".

Finala denboraldiko laburpen bat izan dela onartu du Kixkik: "Beti kontra joan gara eta partidei itzulie ematen aurrera egin dugu. Denboraldi gogoangarria izan da eta nahiz eta sufritu, poztekoa da horrelako amaiera ematea".

Denboraldi amaieran, festa

Texas Lasartearra CFk ekainaren 1ean emango dio amaiera denboraldiari. Talde zuri-urdineko kideak Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko Sasoetako eraikinean bilduko dira egun osoko jaietan.

10:30etik aurrera, futbol txapelketa izango da. Bazkari ederraz gozatuko dute eta 16:30ak aldera, jokalariek esanguratsuei sariak banatuko dizkiete. Dj baten musikarekin amaituko da eguna.

Txanponaren bi aldeak Euskal Ligako finaletan

Herritarrak kide dituzten 18 urtez azpiko Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak eta Gaztedi taldeek Euskal Ligako finalak jokatu dituzte. Beltzek garaipena erdietsi dute; Aizpea Racamondek eta gasteiztarrek, aldiz, ezin izan dute Uni Bilbao gaintitu

Txintxarri

Errugbiko Euskal Ligako final ezberdinak jokatu ziren Ordizia-ko Altamira zelaian hilaren 25ean. Emakumezkoen zein 18 urtez azpiko lehiatan Lasarte-Oriako ordezkariek izan ziren borrokan. 18 urtez azpiko Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak taldean Lander Zabala, Eneko Sanchez eta Joanes Arroyo zelaian zein Efren Real aulkian izan ziren eta Aizpea Racamonde, aldiz, Gaztedi taldeko hamabostekoan, emakumezkoen finalean. Beltzak RTko harrobiko gazteek txapelak kopa altza zuten; Racamondek txapeldunordearen saria jaso zuen.

18 urtez azpiko norgehiagokan Cumenor Elorri Arrasate taldea izan zuten aurrez aurre beltzek.

Lehen minutuan aurkariak beldurra sartu zuen arren, markagailuak batetik bestera egin zuen lehen zatian zehar. Atsedendaldirako minutu batzuk falta zirela, beltzek hiru entsegu eta bi gauzatzerekin alde handia



Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak taldeko kideak, Euskal Ligako kopa jasotzen. ZARAUTZ RT

ireki zuten. Bigarren zatian ederki mantendu zuen errenta Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak eta 36-41 amaitu zen norgehiagoka.

Ezin bilbotarrekin

Ordu batzuk geroago, Uni Bilbao Rugby eta Gaztediren arteko emakumeen finala lehiatu zen.

Bilbotarrak indartsu hasi ziren erasoan eta aurre hartu zuten. Gasteiztarrek Uni Bilbao Rugbyren defentsa sendoa gaintuzteko arazoak izan zituzten. Metroak irabazteko borroka handia izan zen arren, Gaztedik errenta txikitu zuen. Tamalez bilbotarrek gasteiztarren akatsak baliatu zituzten 25-17 garaitzeko.

40 urte, iruditan laburtuta

Lau hamarkada osatzea erraza ez den moduan, urte horiek laburbiltzea ere lan mardula da. Ahalegina egin dute Beltzak Errugbi Eskolako kideek eta lagin esanguratsuenekin ibilbide horren bilduma bat osatu dute.

Antonio Mercero aretoko hormetan argazkiak zintzilikatu dituzte, ezkerretakoan lehen garaietakoak, Euskal Herriko Errugbi Eskola Independentea zenekoak, eta eskuinekoan, eskola bilakatu zenetik

aurrerakoak. Gutxi batzuk besterik ez direnez eta aukeratzea kosta izan zaienez, pantailan beste asko pasatzen doaz. Ondoko mahaian, besteak beste, jokalarizandakoen fitxak daude, eta gelaren erdigunean, liburuak, oinetakoak, kamisetak, dokumentuak, lehen bandera, grabatu gabeko ereserkia... eta leiho aurrean kopa bat.

Historia bitxia du garaikurrak. Lezo, Erreterria eta Lasarte-Orian jokatzen duten txapelketa hirutan irabazten zuenak beretzat hartzen zuten. Irabazi zutenek ospakizunean galdu zuten eta bi hamarkada geroago berreskuratu dute, behin-behineko. Erakusketaren ateak zabaldu dituenen bakarra zen, baina hari batu zaio Gesalaga Okelan Zarautz Beltzak taldeko 18 urtez azpiko taldeak eskuratutako Euskal Ligakoa.

Erakusketa ekainaren 2a arte, igandea, ikusteko aukera izango da. Astelehenetik ostiralera, 18:00etatik 20:30era eta asteburuetan, 11:00etatik 13:00era.

Izar Beltzak oroimenezkoa

Bezperan, goizean rugby eskolako haurrek eta familiek denboraldiari amaiera emango diote eta arratsaldean, Izar Beltzak oroimenezkoa jokatuko dute.

Atletico San Sebastian, Huescako Quebrantahuesos eta Beltza Lasarteorians/ZRT taldeak izango dira nor baino nor 15:15etik aurrera.



Erakusketako irudia. TXINTXARRI



OSTADAR BOLEIBOLA

Garaikurretik garaikurrera

Ostar Boleibola saileko taldeek bi hitzordu garrantzitsu izan zituzten hilaren 25ean.

Infantil A taldeak Gipuzkoako ordezkarik gisa lehiatu zuen Euskadiko Eskolarteko Kirokoko Jokoen. Getxon jokatutako jardunaldian bigarren sailkatu zen talde urdin-beltza. Lakua Jatorkide 2-0 garaitu eta gerora

garaile izango zen CV Sestaoren aurka 0-2 galdu zuen Ane Theus eta Nora Caspistegiren taldeak.

Bestalde, Gipuzkoako txapelketako sari banaketa izan zen Donostiako Pio Baroja kiroldegian. Bertan talde urdin beltzeko senior zein infantil taldeek Gipuzkoako ligako garaikurra jaso zuten.

Aitor Manso, podiumak metatzen Euskadiko txapelketan

Lasarte-Oriako gidaria San Cosme igoeran garaile izan zen 9. kategorian eta bigarren, sailkapen orokorrean

Txintxarri

Euskadiko Mendi igoeran txapelketa aurrera doa. Hilaren 25ean, San Cosme Igoera jokatu zen Zallan (Bizkaia) eta Aitor Manso herritarra podiumera igo zen bitan. Sailkapen orokorrean bigarren izan zen gidari gaztea Joseba Iraolaren atzetik eta 9. kategorian, aldiz, lehen sailkatua izan zen.

Lasarte-Oriako gidaria pozik dago lortutako emaitzekin. Mansok azaldu duenez, denboraldi hasiera honetan gupil berri batzuk probatzen ari dira eta



Manso, San Cosmeko podiumean. A. MANSO

ibilgailua horretara moldatzen. Gainera, Espainiako txapelketarako bigarren probarako erritmoa hartzeko baliagarria egin zaie San Cosme igoera.

LOKEko jubenil B taldeak brontzea jantzi du

LOKEko gimnastak maila handiko jubenil mailako Euskadiko txapelketan zein Euskadiko Kirol Jokoetan parte hartu dute. Jubenil B taldea Euskadiko txapelketako podiumean izan da. Alebin mailan ere lehen hamarren artean sailkatu dira gaztetxoak

Txintxarri

Lasarte-Oria Kirol Elkarteko (LOKE) gimnastek jubenil mailako Euskadiko txapelketari zein Euskadiko Kirol Jokoei aurre egin zieten hilaren 25ean eta 26an.

Kirol elkarteko kideak maila handiko lehiaketetan jardun ziren. Euren lanak ederki bete arren, Jubenil B mailako taldea izan da bakarra Euskadiko txapelketan podiumera igozten; hirugarren izan ziren. Eta Laia Suberbiola gertu izan zen Euskadiko Kirol Jokoetan esku hutsik egindako lanean. Ikus sailkapena ondoko taulan.

LOKEko arduradunak harro daude gimnastek egindako lanarekin. Jubenilen kasuan, gainera, berezia izan da brontzezko domina. "Aurten azken urtea izan dute gurekin. Gehienek txikitatik egin dute gimnastika erritmikoa gurekin eta orain kanpora doaz ikastera", azaldu dute prestatzaileek.



Jubenil taldea. LOKE GIMNASTIKA

Dominak eta hitzorduak

Ez da hau azken asteetan jubenilek jantzi duten garaikur bakarra izan. Hilaren 19an, jubenil eta kadete B taldeak Gasteizen izan ziren lehian. Itzal Torneoan parte hartu zuten eta ederki jardunez, bi taldeak podiumera igo ziren. Jubenilek uztaiak eta pilota lanarekin garai-pena erdietsi zuten; kadete taldeak, aldiz, pilota lanarekin hirugarren postua eskuratu zuen.

Ekainaren lehen, aldiz, master, senior eta kadete mailako gimnasten txanda izango da; Durango jokatu dute Euskadiko txapelketa.

Euskadiko txapelketa

• Jubenil A

Noa Del Amo / Saioa Boyero - zinta 21^a; pilota 16^a; orokorra 19^a.

Erika Tejero - zinta 15^a; pilota 19^a; orokorra 18^a.

• Jubenil B

Aitana Molano - zinta 6^a; pilota 8^a; orokorra 9^a.

LOKE - uztaiak eta pilotak 3^a

Euskadiko Kirol Jokoa

• Alebin A

Laia Suberbiola - soka 8^a; esku hutsik 4^a; orokorra 7^a.

Aiala Jimenez - soka 10^a; esku hutsik 9^a; orokorra 9^a.

Lasarte-Oriako igerilariak markak ontzen jarraitzen dute

Euskadiko Kirol Jokoetan eta Mare Nostrum txapelketako lehen jardunaldian lehiatu dira herritarrak

Txintxarri

Lasarte-Oriako igerilariak bi hitzordu garrantzitsu izan zituzten Euskadiko zein Gipuzkoako selekzioarekin, hilaren 25ean eta 26ean.

Buruntzaldea IKTko hiru kide -Ander Martinez, Itxaso Iparragirre eta Oier Jauregi- Gipuzkoako selekzioarekin Galdakaon (Bizkaia) lehiatu ziren igeriketako Euskadiko Eskolarteko Kirol Jokoetan hartu zuten parte. Liher Albizu kidea ere deialdian bazegoen ere, ezin izan zen bertan egon.



Euskal Jokoetako irudia. BURUNTZALDEA IKT

Ederki jardun ziren taldeko gaztetxoak. Oier Jauregi eta Itxaso Iparragirrek 200 m. bizkar eta 100 m. lau estilo probak lehiatu zituzten. Jauregi bietan

ondu zituen markak eta lehen postuetan izan zen; zazpigarren (02.56,20) eta bosgarren (01.25,45) sailkatu zen hurrenen hurren. Iparragirrek 200 m. bizkar probako deskalifikazioa, 100 m. lau estiloetako marka berriarekin (01.25,60) ahaztu zuen. Ander Martinezek, aldiz, 100 m. proban egin zuen igeri eta 01.36,97 markarekin amaitu zuen lehia.

Nazioarteko lehia

Leire eta Ainhoa Martin ahizpek, aldiz, Mare Nostrum txapelketako jardunaldia lehiatu zuten Canet-en-Rousillon (Frantzia) Euskadiko selekzioarekin. Nazioarteko igerilarien aurka egin zuten igeri eta finaletarako sailkatu ziren; Ainhoa 200 m. bular probako A finalean izan zen; Leire, aldiz, 50 m. bizkar saioko B finalean.

Intza KEko infantilek Udaberri txapelketan aurrera egin dute

Final zortziren borrokatuan LAPKE 18-15 garaitu dute. Mundarro 1 garaituko beharko dute finalerdia iristeko

Txintxarri

Intza KEko Markel Lopez eta Oier Jauregi infantil 2. mailako Udaberri txapelketako final zortzirena gainditu dute. Hilaren 24an, Loidibarren pilotalekuan jokatu zen partida borrokatuan LAPKE garaitu zuten.

Neurketa ez zen ongi hasi. Lazkaoko bikoa izan zen nagusi lehen minutuetan eta 2-8 aurreratu zen. Etxekoek ez zuten amore eman eta tanoz tanto 7-8 gerturatzea lortu zuten. Tamalez aurkariak ongi egin zioten aurre egoerari eta berriro ere errenta hartu zuten kezagarria zen 6-14ra iritsiz.

Orduan, etxekoek tantoa egin eta pilota aldatzearekin bat,



LAPKEren aurkako partida. TXINTXARRI

egoerak itzulia eman zuen guztiz. Intzako kideak pilota motelari jokoa egokitu eta tantoak lasaitasunez amaituz 18-15 irabazi zuten.

Finalerako bidean, Mundarro 1 izango dute aurkari hurrengo kanporaketan.

Atleta gazteak Euskal Kirol Jokoetako podiumean izan dira

Lasarte-Oriako ordezkariak Gipuzkoako selekzioarekin lehiatu dira eta lau domina eskuratu dituzte

Txintxarri

Lasarte-Oriako lau atleta gaztek -Eider Redondo, Lua Ferrera, Iker Ibeas eta Hodei Murgiondo-Basaurira (Bizkaia) egin zuten bidaia Gipuzkoako selekzioarekin Euskadiko Eskolarteko Euskal Jokoetan lehiatzeko. Lan ederra egin zuten guztiek eta lauetatik hiru euren probetan podiumean izan ziren.

Ostadar SKTko Lua Ferrera garaile izan zen 3 km. martxa (23.52,05) proban eta Atletico San Sebastianeko kide Hodei

Murgiondo ere podiumeko gorenean izan zen selekzioen arteko 80 metro hesi lasterketako lehian (12.42).

Eider Redondo talde urdin-beltezko kideak bi domina jantzi zituen. Zilarrezko postuan izan zen luzera jautsian, lehen sailkatutik zentimetro batera (5,17 m.) eta Gipuzkoako selekzioarekin 4x80 m. errelebo proban lehen postuan sailkatu zen (41.70).

Talde kide Iker Ibeas altuera proban parte hartu zuen eta hamargarren (1,35 m.) izan zen.

Lezoko inguruetan


Ostadar Ipar Martxako kideek hilaren 1ean ikasturteari amaiera eman baino lehen Jaizkibelego magalean ibili ziren. Lezotik atera eta Lorbide bidea edo Altamirako zelai eta baserrietatik barrena txango ederra egin eta Pasai Donibanen amaitu zuten eguna.



OSTADAR IPAR MARTXA

Baina ez da hori azken iteera izango, hilaren 1ean, Ostadarreko denboraldiko amaiera festa baino lehen makilak hartu eta Txokoaldera joan-etorria egingo dute.

KOMIKIA




ZORION AGURRAK



Amaiur
Zorionak Amaiur! 4 urte bete dituzu! Lau bizkotxo? Ezz, lau muxu erraldoi ama, aita eta Oinatzen partez. Ondo pasa!



Enaut
Zorionak Enaut!!!! Ondo pasa zure urtebetetzea egunean!!! Disfrutatu, ondo ospatu eta egongo gara!!!! Oier, aiton-amona eta familiaren partetik besarkada bat bihotzez.



Xuban
Zorionak maitia! Zure irrifarrak bihotzak betetzen dizkigu egunero, zure goxotasunak indartu egiten gaitu, eskerrik asko pirata! Urtebetetzea ezin hobea pasa eta egin irri!! Muxu erraldoia aitatxo, Joanes eta amatxoren partez



Inma
Zorionak gure idazkari finari!! Ondo-ondo pasa eta gorde indarrak astebururako!! Ospatutakoa aktan jaso ala ez, zuk ikusi!! Ttakuneko lankideen partez. PD: oso goxoak bonboiak!

EGURALDIA LASARTE-ORIAN

Ostirala, 31



Larunbata, 1




Igandea, 2



Astelehena, 3



Asteartea, 4



Asteazkena, 5



Osteguna, 6



TELEFONOAK

UDALAREN TELEFONOAK

- ERREGISTROA: 943-37 16 29
- EUSKARAKO ZERBITZUA: 943-37 61 84
- KIROLDEGIA: 943-37 61 82
- MANUEL LEKUONA
- KULTUR ETXEA: 943-37 61 81
- GIZARTE ZERBITZUAK: 943-37 61 79
- KIUB: 943-36 16 05
- UDAL EUSKALTEGIA: 943-36 16 21
- MUNTTERI AEK: 607 62 52 33

LARRIALDI TELEFONOAK

- OSASUN ZENTROA: 943-00 79 60
- DYA: 943-46 46 22
- GURUTZE GORRIA: 943-36 39 53
- UDALTZAINAK: 943-36 24 42
- ERTZAINAZA: 943-53 88 40
- SOS DEIAK: 112

GUARDIAKO FARMAZIAK

OSTIRALA, 31	DE ORUE
LARUNBATA, 1	LASA
IGANDEA, 2	LASA
ASTELEHENA, 3	URBISTONDO
ASTEARTEA, 4	GANDARIAS-URIBE
ASTEAZKENA, 5	DE ORUE
OSTEGUNA, 6	DE MIGUEL

Eguneko Farmaziak: 09:00-22:00

DE ORUE: Jaizkibel plaza 2/ 943-36 26 52
 ACHA-ORBEA: Hipodromo et. 6/ 943-36 35 49
 DE MIGUEL: Kale Nagusia 32/ 943-37 11 51
 LASA: Kale Nagusia 42 atzea/ 943-36 17 74
 GIL: Kale Nagusia 24/ 943-36 07 08
 URBISTONDO: San Frantzisko 1/ 943-36 65 67
 GANDARIAS-URIBE: I.de Loyola 9/ 943-01 95 21

GAUEKO FARMAZIA 22:00-09:00

Florida Farmazia: Mañe I Flauquer plaza 6, Hernani. 943-57 64 77

'URTE OSOKO GUARDIAK'

Informazio gehiago www.cofgipuzkoa.com webgunean eskuragarri.

OHARRAK

Sasoeta-Zumaburuko Eskola Kirolan izena ematea

Sasoeta-Zumaburu ikastetxeko Eskola Kirola ekimeneko izen ematea ekainaren 3an, astelehenerekin irekiko da.

Inskripzioa guraso elkarteak familiei bidaliko dien esteka baten bidez egingo da. Formularioko loturarekin batera, Eskola Kirolako arautegia eta irizpideak jasotzen dituen dokumentua txertatuko da.

Ttakun Kultur Elkarteak ku-deatuko ditu izen emateak eta prozesuko edozein zalantzarik izanez gero, 695 78 53 94 telefono zenbakira deitu edo eskola-kirola@ttakun.eus helbidera mezua idatzi dezakete gurasoek. Ekainaren 16an itxiko da inskripzio epea.

San Juan, sokadantza entseguak

San Juan bezperako (ekainak 23, igandea) sokadantza prestatzeko entsegu irekiak egingo ditu Erketz EDTk. Asteazkenean Landaberri ikastolako Garaikoetxea eraikinean, 20:00etan bilduko dira ekitaldiko dantzak prestatzera. Parte hartu nahi duen edonor bertara daiteke entseatzera.

Zatoz txistua jotzera

Txistularia bazara, eskola zaharrekoa zein kontserbatoriokoa, hasiberria edota txistua tiraderan ahaztuta hautsa biltzen dutenetakoa. Duzun maila duzula ere, zatoz gurekin entsaiatzera. Adin guztietako lagunak topatuko dituzu eta giro ezin hobea. Besoak zabalik hartuko zaitugu. REMen biltzen gara asteartero 19:30etik aurrera.

ESKERTZA

"Ederra izan da Eskutik Eskura kanpaina"

Banaketa lanak amaitu berri-tan Lasarte-Oriako Errigorako Taldeak eskerrak eman dizkie eragile horren udaberriko egitasmoan parte hartu duten herritarrei. Milaka litro olio, ardo berezi eta gorenak eta kontserba, pasta, lekale, arroz nahiz arbendola kilo mordo bat eraman dituzte euren etxetara.

"Elikadura burujabetzara bidean aurrera goaz", nabarmendu dute taldeko kideek: "Zorionak, bihotzez, Errigora egiten eta bide honetan sinesten duzun guztioi".



AZOKA TXIKIA

ETXEBIZITZA



ALOKATU

Apartamentu ederra alokatzen dugu Torredembarran (Tarragona), asteka, uztailean eta abuztuan. Etxe indianoa eta oso argitsua. Beheko solairuak lorategia du, eta hondartzatik 500 metrora dago. Etxebizitzak amerikar erako egongela, sukaldaria, bainugela eta senar-emazteentzako logela ditu. Guztira 50m2 lorategiarekin, irteera independentearekin eta aparkaleku propioarekin. Prezioa 975

euro sei gau. Informazio gehiagorako 608319110 608043713 telefonoak. "Ongi Etorri".

SALDU

Denda saltzen dut. Okendo plazan dago. Geltoki kalea 3. 135.000 euro. Ez da alokatzen. Interesa duenak dei dezala 658 08 93 80 zenbakira.

GARAJEA

ALOKATU

Erdigunean garaje marra bat alokatzen dut abendutik aurrera. Arratsaldez deitu hona: 650 63 65 88.

LANA

ESKARIA

33 urteko gizona lan bila dabil. Tabeman, sukaldean, garbiketa lanak, pertsona adinduak zaintzeko edo edozen lan egiteko prest. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

Umeak zaintzeko prest nago, esperientzia handia. Harremanetarako, 695 18 41 79.

46 urteko emakumea garbiketa lanak egiteko eskaintzen da. Esperientzia du, baita informea ere. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

Emakumea ekaintzen da asteburuetan lan egiteko. Esperientzia eta informekin. Harremanetarako zenbakia: 687 35 50 95.

BESTELAKOAK

SALEROSKETA

Haritz egurra saltzen dugu, tximinia edota ekonomiketarako. Eskatu ostean ebera eramateko zerbitzua dugu. Harremanetarako zenbakia, 667 23 23 00.

Iragarkia jarri nahi baduzu jar zaitez gurekin harremanetan

ESKELA


ESKELAK JARTZEKO

TEL: 943-37 14 48
edo TXINTXARRI erredakzioan

► Eskela Txintxarri paperean: **80 €**
► Eskela Txintxarri paperean + Txintxarri.eus-en: **90 €**

Txintxarri: doan eta euskaraz
Lasarte-Oriako etxe guztietan 943-37 14 48

MANTTANGORRI HIRIBUSA



Lanegunak

Antxisu	Zabaleta	Atsobakar	Kotxerak
08:00	08:10	08:15	08:20
08:40	08:50	08:55	09:00
10:30	10:40	10:45	10:50
11:00	11:10	11:15	11:20
11:30	11:40	11:45	11:50
12:05	12:15	12:20	12:25
12:30	12:40	12:45	12:50
13:00	13:10	13:15	13:20
13:30	13:40	13:45	13:50
16:30	16:40	16:45	16:50
17:00	17:10	17:15	17:20
19:30	19:40	19:45	19:50
20:00	20:10	20:15	20:20

txintxarri

Etxe ondoan, kalean, auzoan... gertutasunez eta euskaraz



www.txintxarri.eus

txintxarri

WWW.TXINTXARRI.EUS

Argitaratzailea

Ttakun Kultur Elkarteak
Geltoki kalea 4 (behea)
20160 Lasarte-Oria
G-20407557

Administrataria

Nerea Garziarena.

Erredakzioa

Nerea Eizagirre, Iñigo Gonzalez, Maddi Zaldúa eta Maitane Aldanondo.

Publizitatea

Irati Zatarain.

Laguntzaileak

Gorka Lasa, Asier Odriozola, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Maitane Rebe, Julen Basterra, Lierni Rekondo eta Aizpea Amas.

Banatzzaileak:

Nikola Iraola, Xuban Urdalleta, Egoitz Epelde, Nora Navarro, Sergio Hernandez, Ander Hazas eta Iñigo Garcia.

Informatika zerbitzuak

IZT Informatika.

Publizitatea

Tel.: 943-37 14 48 (106)
WhatsApp: 646 82 44 66
publizitatea@ttakun.eus

Egoitza nagusia

Geltoki kalea 4
Tel.: 943-37 14 48 (104)
WhatsApp: 688 68 35 10
txintxarri@ttakun.eus

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.
Lege Gordailua: SS-513/93
ISSN: 1134-0053
Tirada: 8.300 ale

BABESLEA



LASARTE-ORIA
UDALA

DIRUZ LAGUNDUTAKO ARGITALPENA:



Gipuzkoako Foru Aldundia

AGENDA

EMAIGUZUE ZUEN EKITALDIEN BERRI ASTEAZKEN ARRATSALDEA BAINO LEHEN.
Tel.: 943-37 14 48 / bintxarri@ttakun.eus

OSTIRALA 31

LASARTE-ORIA Dantza

Udal Musika Eskolan dantza ikasten duten herritarrek ikasturte amaierako emanaldia egingo dute. Sarrerak doakoak direla jakinarazi dute antolatzaileek.

Kultur etxeko auditorioa, 18:30ean.

LASARTE-ORIA Festak

Zabaleta auzoko jaietako laugarren eguna. Hauxe izango da egitaraua:

19:00etan, Teresa Sorgiñari ongietorria: jaietako pregoia, Jalguneren dantza emanaldia eta Sorgin Dantza herrikoia.

19:30ean, festetako dantzak, goxoraketak eta buruhandiak.

21:00etan, afari auzotarra. Norberak eraman behar du bere janaria eta edaria.

23:30ean, Euskal Dantza Sorkuntza emanaldia Kukuka eskolako ikasleen eskutik.

00:00etatik aurrera, musika festa: Andoni Ollokiegi eta Auskalo taldearen kontzertuak. **Zabaletako auzoa, 19:00etatik aurrera.**

LASARTE-ORIA Manifestazioa

Lasarte-Oriako Sarek mobilizazioa deitu du, Azken Ostirala. Euskal presoaren eskubideen alde manifestatuko dira. **Elizatze plaza, 20:00etan.**

LARUNBATA 1

LASARTE-ORIA Festak

Zabaleta auzoko jaietako bosgarren eguna. Hauxe izango da egitaraua:

09:00etan, diana.

11:00etan, margoketa tailerra eta txokolate jana.

11:00etan, Xumela koruak emanaldia egingo du.

12:30ean, Zapotxin pailazoaren emanaldia.

15:30ean, Joxe Migel Aranzadiren omenezko XIV. Mus Txapelketa. Caddie tabernaren laguntzarekin.

16:00etan, saskibalo partidak.

17:00etan, LOZET elkartearen erraldoi, buruhandi eta dultzaineroak.



LASARTE-ORIA Festak

Zabaleta auzoko jaiak ospatzen ari dira herritarrek. Gaur (hilak 31) jaitsiko da Teresa Sorgiña eta ongietorri beroa egingo diote zaindariari. Bihar eta etzi jarraituko du festa giroak.

Hilaren 31tik ekainaren 2ra, Zabaleta auzoan barrena, egun osoan zehar.

18:30etik 20:00etara, pala eta frontenis txapelketetako finalak.

20:00etan, goxoraketak eta buruhandiak.

20:00etan, Elektropottotte elektrotxaragaren emanaldia auzoan barrena.

21:00etan, herri afaria.

Afalostean abestuko dute Lierni Rekondo eta Iker Ormazabal *Turko* bertsolariek.

23:30ean, Akelarre dantza.

23:50ean, LOZET elkartearen zezensuzkoa.

00:00etan hasita, kontzertuak: Txili Pipar, Sinergy eta DJ Fantasia. **Auzoan barrena, 09:00etatik aurrera.**

LASARTE-ORIA Sinadura bilketa

Lasarte-Oria Osasun Publikoaren Alde plataformak kalitatezko sistema publiko baten aldeko atxikimenduak bilduko ditu eta hainbat sindikaturekin batera argitaratutako manifestu bat banatuko.

Zabaleta auzoa, 12:00etatik 13:00etara.

IGANDEA 2

LASARTE-ORIA Festak

Zabaleta auzoko jaietako azken eguna. Hauxe izango da egitaraua: **09:00etan**, diana.

10:30etik 11:00etara, patata tortilla txapelketa. Avenida taberna-jatetxearen laguntzarekin.

11:00etan, Euskal Dantza erakustaldia Kukuka eskolako ikasleen eskutik.

12:00etan, herri kirolen emanaldia.

12:00etan, Oaintxe in deu! txaragaren emanaldia auzoan barrena.

12:00etan, LOZET elkartearen erraldoi eta buruhandiak.

13:00etan, proba misto nagusia.

14:30ean, herri bazkaria.

Ondoren, bingo aldrebesa eta txaragaren emanaldia.

18:00etatik 20:00etara, Malkogarriyak erromeria taldearen kontzertua.

18:30ean, toka txapelketa herrikoia jokatuko dute.

20:30ean, azken traka eta Teresa Sorgiñari agurra, hurrengo urteko festetara arte.

Auzoan barrena, 09:00etatik aurrera.

ASTELEHENA 3

LASARTE-ORIA Ospakizuna

Desfile batekin ekingo dio Kukuka eskolak 22. Antzerki eta Dantza Asteari. Ikasle eta irakasleek kolorez beteko dituzte Lasarte-Oriako kaleak.

Kultur etxe kanpoaldetik abiatuta, 19:00etan.

ASTEARTEA 4

LASARTE-ORIA Hitzaldia

Eli Elizegi eta Iñigo Suberbiola herritarrek *Hitz egin dezagun...*

heriotzaz bizitzatik hitzaldia emango dute: zainketa aringarri, eutanasia eta aurretiazko borondateaz jardungo dira. Sarrera doakoa da eremua bete arte eta lehentasuna izango dute bazkideek.

Arrieskalleta elkarte, 18:00etan.

LASARTE-ORIA Ospakizuna

Antzerki emanaldiak egingo dituzte Kukukako ikasleek, 22. Antzerki eta Dantza Astearen barruan: *Mundu magikoa* (Landaberri, LH1); *Dortoka txikia* (Sasoeta, LH1); *Zu, zu, zu, Otso Jauna* (Sasoeta, LH2-3); eta *Basoaren zaindariak* ipuinaren moldaketa (Landaberri, LH2).

Kultur etxea, 10:00etan eta 19:00etan.

ASTEAZKENA 5

LASARTE-ORIA Ospakizuna

Antzerki emanaldiak egingo dituzte Kukukako ikasleek, 22. Antzerki eta Dantza Astearen barruan: *Tristek kontsolatzeko makina* (Landaberri, LH3); *Munduan bira barkuan* (Landaberri, LH3); *Clownariketak* (Landaberri, LH4); *Zubietako Museoa* (Zubieta, LH1-4); eta *Zubietako Super Eskola* (Zubieta, LH4-6).

Kultur etxea, 19:00etan.

Kultur etxea, 10:00etan eta 19:00etan.

OSTEGUNA 6

LASARTE-ORIA Ospakizuna

Antzerki emanaldiak egingo dituzte Kukukako ikasleek, 22. Antzerki eta Dantza Astearen barruan: *Beautiful* (Sasoeta, LH4-6); *Pijama festa ezohiko bat* (Landaberri, LH5); eta *Landaberriko Talent Show-a* (Landaberri, LH6).

Kultur etxea, 10:00etan eta 19:00etan.

OSTIRALA 7

LASARTE-ORIA Ospakizuna

Antzerki emanaldiak eta Euskal Dantza Sorkuntza erakustaldiak egingo dituzte Kukukako ikasleek, 22. Antzerki eta Dantza Astearen barruan: batetik, *Gure garaia* (DBH 1-2) antzezlanak; bestetik, LH4-6, DBH 1-3, DBH2 eta DBH3-4 mailetako taldeek dantzatuko dute.

Kultur etxea. Antzezlanak, 10:00, 12:45 eta 19:00etan; dantza, 10:00 eta 12:45ean.

LARUNBATA 8

LASARTE-ORIA Ospakizuna

Euskal Dantza nahiz Euskal Dantza Sorkuntza erakustaldiak egingo dituzte Kukukako ikasleek, 22. Antzerki eta Dantza Astearen barruan.

Kultur etxea, 19:00etan.

Ttakun KE, sanpedroak prestatzen

Urtero legez, San Pedro Jaietan zenbait ekimen aurrera eramango ditu Ttakun Kultur Elkarteak.

Sorgin Dantzako entseguak

- Ekainaren 4, 6, 11, 13, 18, 20 eta 25ean izango dira, Okendo plazan (eguraldi txarra egiten badu Oriarte Landaberriko edota Sasoeta ikastetxeko estalkian ariko dira). Ordua, 20:00ak.

Gure Patxintxiak

- 65 urte edo gehiagoko bi pertsona maitagarri omenduko dituzte aurten ere. Hautagaiak aurkezteko epea ekainaren 1etik 16ra artekoa izango da. Iradokizunak kultura@ttakun.eus helbide elektronikora nahiz Ttakunen sare sozialetara bidal ditzakete herritarrek, edo, bestela, bulegora etorri (Geltoki kalea, 4).

Makarroi jana eta Bustiblai

- Ekainaren 28an izango da, haurren txupinazioa eta gero. Kalejiran joango dira erdigunetik Atsobakarrera, 14:00etan bazkalduko dute. Ostearen egingo dituzte Bustiblai eta ur jolasak. Txartelak salgai Ttakunen bulegoan, 3 eurotan, ekainaren 10etik aurrera.



bertako
igogailuak | ascensores

HARRO!
www.bertako.eus



txintxarri

San Pedro Jaietako zenbaki bereziak ekainaren 21ean eta uztailaren 5ean

Deskontu bereziak herrikoentzat!

Zure komertzioa bertan iragarri nahi duzu?
Eskatu tarifak: publizitatea@ttakun.eus | 646 82 44 66



EGUNAK
EKAINAK 4, 6, 11, 13, 18, 20 eta 25

ORDUA
20:00ETATIK 21:00ETARA

LEKUA
Okendo plazan. Eguraldi txarra eginez gero, Oriarteko estalkian edo Sasoeta ikastetxeko estalkian.

SORGIN DANTZA ENTSEGUAK

LASARTE-ORIA SAN PEDRO JAIK

Patxintxi sariak 2024

- Zuretzat, nor da pertsonarik goxo eta maitagarriena?
.....

- Nola jarri gaitzke berarekin harremanetan?
.....

Zure izena eta kontaktua:.....

itsatsi zure hautagaiaren argazkia

Zuzenean igotzeko:



Patxintxi sariak 2024

65 urtetik gorako pertsona maitagarri eta goxoenak

Bidali zure hautagaiak ekainaren 16ra arte

Ttakuneko bulegoan, kultura@ttakun.eus-era, 695 78 53 89.
Ttakuneko sare sozialetara labur.eus/patxintxisariak2024

Sari banaketa San Pedroetako txupinean!